

## Arnasaldia

**H**amabost egun eman ditut bertsotan egin gabe. Apirileko lehen hamabostak. Azken hogeit urtetan ez nintzen sekula hainbeste denboran egon jendaurrea azaltzeke. Itzuleran sentimendu kontrajarriak izan ditut: batetik ikara eta bestetik gogoratzearen poza. Batetik herdoila mihian eta bestetik zetorren ideia oro berri jotzearen asebetea. Baina orobat, arnasaldiak mesede egiten duela uste duenari denok ez garela berdinak erantzungo nioke. Zenbaiti on egingo dio eta zenbaiti kalte. Loak ere halatsu egiten digu.

## Ameriketa

“Amerikara noa nire borondatez...” zahar hura berritu dut apirilarekin. New Yorken eta Massachusettsen ibili gara, plazerbidaiari, bertsorik botatzeko edo hitzaldirik emateko konpromisoetatik



urrun. Hontzaren begirada prest eraman nuen eta izan da arreta erakarri didan kontutxorik. AEBetako leku askotan, esaterako, arkitektu eta aparejadoreek ez dute hemengoen aginpidaren laurdenik ere. Han lurra soberan dute. Aldiz, abokatu eta aseguru-etxeek sekulako indarra daukate. Telebistako iragarkiak dira lekuko. Jakina, gizarte-segurantzarik gabeko herri batean, lege-gizonen eta emakumeen menpe daude hiritarrak uneoro. Bestalde, bitxikeria baino ez balitz ere, Bushen aurkako sutuak diren herrietan ere –“Gerra ez da erantzuna” dioten txartelez beteak daude etxe-atarriak– bandera marra eta izarduna jartzen amorratuak dira. Eta jardinetan berriz, bainera zutikakoetan sartuak ipintzen dituzte Amabirjinaren igeltsuzko irudiak. Estalpe xelebrea iruditut zitzagun guri. Haiei akaso barregarri irudituko zaie Arantzazuko Amabirjinaren irudia kristalezko kutxa txiki batean sartu, jirarazi eta elur moduko maluta txuriak erortzen ikustearekin umetan nola pozten ginen jakitea.




DANI BLANCO

## Doinukera

Ernegazioa sortzen du elkarrekin euskaraz ari, ingelesez zerbait eskatzen ahalegindu eta gaztelaraz erantzuten dizutenean. Buruan pasatzen zaizun lehena da, janzkerarengatik ezagutu dutela zure jatorri penintsularra. Edota ilajearengatik... Edo... auskalo zergatik! Uste dut ordea, janzkeratik edo ilajetik harago doala arazoa. Doinukeragatik sumatzen dute espainiarrak (edo) garela. Gure euskarazko egungo doinukerak auzokoarenetik asko du eta horrek salatzen gaitu nonbait. Kanpokoen belarriek aisa sumatzen dutenaz geu ez gara jabetu ere egin tamalez. Itsasuko laurogei urteko aitonari edo Markinako adin beretsuko amonari ez liokete antzemango. Kanpoan genbiltzala bestera gertatzen zitzagularik, gaztelaraz ari eta euskaldun ginela antzeman, harrotasun punttu bat sentitzen genuen. Euskaraz ari eta espainiartzat hartua izateak aldiz, min ematen du eta zer pentsatua ere bai.

## Sosak

Guretzat ez da mintzagai izaten dirua, kexu orokor eta lainoren bat egiteko ez bada. Lotsa sentitzen dugu, geurea eta inorena, diru kontuez aritzekoan. AEBetan ez dute horrelakorik. Han, konfidantza apur bat eraiki orduko, bigarren egunerako hor nonbait, galdetuko dizuete urtean zenbat irabazten duzun.



Euskaraz ari eta espainiartzat hartua izateak min ematen du eta zer pentsatua ere bai. Itsasuko laurogei urteko aitonari edo Markinako adin beretsuko amonari ez liokete antzemango



irudiak:

Antton Olariaga



Bertso banatan kontatu behar nuen, nik norbaiten lepo barre egin nuen aldi hartakoa, nire buruari barre egin nionekoa, eta norbaiti irribarrea ostu nionekoa.

Erakargarria iruditu zitzaidan, baina ekarri beharrekoa. Errimatzea eta neurtzea izaten da gutxienekoa horrelakoetan



Kalean berriz, eskalerik ez duzu aurkituko zenbait zonaldetan bederen, baina etxean, erreparo handirik gabe eskatuko dizu auzokoak ea dirurik utziko diozun. Eta zuk, hangoen ohiturei jarraiki, erreparorik gabe erantzun ahal izango diozu ezetz, ez zabiltzala hain oparo. Eta berak, erreparorik gabe hartuko du zure ezezkoa. Hemen, hiru urratsek sortzen digute egonezina: eskatzeak, ezezkoa emateak eta ezezkoa natural jasotzeak.

## Espezializatu

Izan daiteke etorkizunean bertsogintzak har dezakeen bideetarikoa bat. Bertsolari guztiok entzuleria guztientzat aritu orde, gerta daiteke bertsolari espezializaturen batzuk publiko espezializatuentzat soilik aritzea. Ameriketara gehien entzuten den aditza “kustomizatzea”ren hori da. Produktua zeuretzat eta zeuretzakoxe egokitua. Bertsotan ere hasiak gaude Ingeniari Kolegiatuentzat, Medikuei eta Erizaintentzat, Maisu-maistrentzat eta horrelakoentzat propio kantari. Bertsolari batzuk Zahar Etxeetarako, besteak Gaztetxeetan arituko direnak, gai eta ingurune zientifikoetan aritzeko beste batzuk... Bide bat litzateke. Baina arriskutsua. Bertsolariaren xarma, hain zuzen ere, egokitzen gaitasunean datzala. Ederra delako adin, sexu, sineste eta jakintza maila direnak direla, komunikatzen asmatzea.

## Mugimendua

Mugitzen den orok omen du bizia. Ez dakit... Irungo OLA sagardotegian urtero egiten dugu saioa apirilaren amaiera aldera. Behin bertsolari bat oholtzan eta beste bi goragoko solairu batean kokatzea bururatu



zitzaien gai-jartzaileraren bati, eta ordutik usadio bihurtu da kokagune ohikoa saioaren une jakin batean aldatzearena.

Entzuleari grazia egiten dio “desberdina” den ia edozerk. Bertsolaria ez da ia mugitu ere egin mendeetan.

tan. Armairuak baino geldoagoak gara gure lana burutzerakoan. Akaso aski dugulako hitzaren indarra. Baina haririk gabeko mikrofonoek edo paparrekoei ematen duten aukera egokiago nola baliatu pentsatzen hasi behar genuke badaezpada. Ez da antzerki kontua. Da, kokapen ez ohikoak burubide ez ohikoak sortzen lagun dezakeelako.



Bertsolariaren xarma, hain zuzen ere, egokitzen gaitasunean datza. Ederra delako adin, sexu, sineste eta jakintza maila direnak direla, komunikatzen asmatzea



## Ekarri

Badira bertsotan gai batzuk arrazoia ekartzea behartzen zaituztenak. Etorri ez zaizkizu egingo zeuk ahaleginik egin ezean. Gustuko ditut horrelako gaiak. Azken boladan jarri didaten politenetakoa Santutxun jarri zidaten. Bertso banatan kontatu behar nuen, nik norbaiten lepo barre egin nuen aldi hartakoa, nire buruari barre egin nionekoa, eta norbaiti irribarrea ostu nionekoa. Erakargarria iruditu zitzaidan, baina ekarri beharrekoa. Errimatzea eta neurtzea izaten da gutxienekoa horrelakoetan. Gogoratu egin behar duzu noiz, non, norekin eta zer. Eta modu ulergarrian kontatzen saiatu. Asmatzen duzularik poza handia izaten da. Asmatzen ez duzun ezinak mintzen zaitu. Erdibidean gertatzen gara gehienez... ■